

INFORMAZIO OROKORRA

ENPLEGUAREN XX. ASTEA BIDASOA TXINGUDI ESKUALDEA

2017ko URRIAK 26

FICOBA

- ❖ Edizio honetan, sarrera **libre** izango da **Azoka osoan**; ez da aurretik izenik eman beharko.
- ❖ Jardunaldian, sarrera libreko 20 enpresa egongo dira, eta haietan, interesdunek jakin ahalko dute zein profil eskatzen diren eta zein zerbitzu eskaintzen diren enplegua bilatzeko; eta enpresek hautagaitzak jaso eta elkarrizketa pertsonalak egingo dituzte.
- ❖ Edizio honetan, Prestakuntza zentroak ere izango ditugu, eta informazioa jaso ahal izango duzu zer prestakuntza-proposamen dauzkaten eskualdeko enplegurako.
- ❖ Gainera, Linkedin gune bat eskaintzen dugu, sare sozial profesional handiena; bertan, aholkatu egingo dizugu zure helburu profesional lortu ditzazun.
- ❖ Aurretik, eskatutako perfila eta bertaratuko diren enpresa eta entitateak El Espazioaren (www.elespazio.com) webean argitaratuko dira **URRIAREN 17an**, 10:00etan, ekitaldia egiten den egun berera arte. Ekitaldia **URRIAREN 26an** egingo da, Ficoba Bidasoko erakustazokan, 09:00etatik 14:00ak arte.





ALDI BATERAKO LANA

BILTEGIKO LAGUNTZAILEA

Funtzioak: Paketatzea, enbalatzea, etiketatzea, paletizatzea; *pickinga*; merkantzia kontrolatzea; emate agiriak kontrolatzea eta erreferentziak digitalki erregistratzea

Betekizunak: Pertsona aktibo eta abila izatea, talde lanean aritzeko prest egotea eta gutxienez bi urteko esperientzia izatea antzeko postu batean; informatika ezaupideak izatea eta biltegiak kudeatzeko SAP softwarea erabiltzen jakitea; biltegizain ziurtagiria edukitzea

Eskaintza: Aldi baterako ordezen kontratua egitea; berehalaxe hastea; postuaren arabera kobratzea

FABRIKAZIOKO LANGILEAK (2)

Funtzioak: Piezak mekanizatzea, fabrikatzea eta akabatzea eta piezei bizarrak kentzea; esleitutako makina kontrolatzea eta elikatzea eta piezak jasotzea; produktu bukatua muntatzea; tornuetako eta fresako fabrikazio prozesuetan laguntzea

Betekizunak: Pertsona arduratsu, ausart, ordenatu eta txukuna izatea, lan egiteko gaitasuna duena, eta Mekanizazioko goi edo erdi mailako prestakuntza izatea; ezinbestean, metalgintza sektorean esperientzia izatea; aukeran, CNC tornu eta fresak edo tornu eta fresa arruntak erabiltzeko ezaupideak izatea

Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea, jarraitzeko aukera izanik; lanaldi osoan lan egitea; txandaka lan egitea; berehalaxe hastea; postuaren arabera kobratzea (gutxienez, 22.000 € gordin urtean)

ESKORGA GIDARIAK (4)

Funtzioak: Biltegian tona askoko karga paletizatuak eta paletizatu gabeak mugitzea, orga jasotzaileak eta portiko garabiak erabiliz; merkantzia kontrolatzea; instalazioak egokitzea

Betekizunak: Pertsona aktibo eta abila izatea eta talde lanean aritzeko prest egotea; ezinbestean, antzeko funtzioetan esperientzia izatea eta eskorgak gidatzen eta zubi garabiak erabiltzen ikasi izanaren ziurtagiriak izatea; gidabaimena edukitzea, lantokira joateko

Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea, jarraitzeko aukera izanik; berehalaxe hastea; postuaren arabera kobratzea

ZURGINTZAKO LANGILEAK (3)

Funtzioak: Enpresako tresneria eta instalazioak konpontzea eta zaintzea

Betekizunak: Pertsona abil eta aktiboa izatea eta jarrera ona izatea; Zurgintzako Lanbide Heziketa egin izana; ikasteko eta karrera profesionala sektorean garatzeko prest egotea

Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea, jarraitzeko aukera izanik; berehalaxe hastea

BERNIZATZAILE-LIXATZAILEAK (2)

Funtzioak: Produktu bukatua akabatzea eta makineria egokia erabiliz mekanizatzea; margotzea, bernizatzea, lixatzea eta iztukatzea

Betekizunak: Lan egiteko gogoia eta jarrera ona izatea eta, akaberetan ahal dela, gutxienez bi urteko esperientzia izatea zuraren fabrikazioan; aukeran, txapista edo igeltsero lanetan edo antzeko lanen batean esperientzia izatea;

gidabaimena edukitzea, lantokira joateko; aukeran, bidaiatzeko prest egotea

Eskaintza: Iraupen luzeko aldi baterako kontratua egitea; txandaka lan egitea, goizez eta arratsalde; berehalaxe hastea

ARRAIN MANIPULATZAILEAK (3)

Funtzioak: Arraina garbitzea eta manipulatzeko hainbat kanpainatan

Betekizunak: Antzeko postuetan esperientzia izatea; aukeran, ibilgailu propioa izatea, lantokira joateko, eta elikagaiak manipulatzeko txartela izatea

Eskaintza: Iraupen luzeko aldi baterako kontratua egitea; berehalaxe hastea; txandaka lan egitea; postuaren arabera kobratzea

FRESATZAILEAK / MEKANIZAZIO ZENTROKO OPERADOREAK (2)

Funtzioak: Piezak mekanizatzea, fabrikatzea eta akabatzea eta piezei bizarrak kentzea; esleitutako makina kontrolatzea eta elikatzea eta piezak jasotzea

Betekizunak: Pertsona arduratsu, ausart, ordenatu eta txukuna izatea, lan egiteko gaitasuna duena, eta Mekanizazioko goi mailako prestakuntza izatea; ezinbestean, CNC sistema erabiltzen esperientzia izatea; aukeran, programazio ezaupideak eta CNC tornuak erabiltzeko ezaupideak izatea; gidabaimena edukitzea, lantokira joateko

Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea; lanaldi osoan lan egitea; berehalaxe hastea; 21.000 euroko urteko soldata gordina

ELEKTRONIKAKO TEKNIKARIA / ELEKTRIZITATEKO INGENIARIA

Funtzioak: Taldeburuaren bulegoan, esleitutako instalazioen funtzionamendua kontrolatzeko zentroan zaintza lanak egitea; txostenak egitea; planoak eguneratzea; jarduera protokoloak betetzea

Betekizunak: Lan egiteko jarrera ona izatea, talde lanean aritzea, txukuna izatea, halako autonomia izatea eta arduratsua izatea; Elektrizitate edo Elektronikako goi mailako prestakuntza edo Elektrizitateko Injeniaritza Teknikoa izatea; aukeran, mekanika edo iturgintza ezaupideak izatea, edo itsasontziko mekanikakoak; plano elektrikoak interpretatzen jakitea; goi mailako Office edo Autocad ezaupideak edo antzekoak izatea; EPLAN programa erabiltzeko ezaupideak izatea; euskara maila handia izatea; ordutegi malgua izateko eta gaueko txandan ere lan egiteko prest egotea

Eskaintza: Sei hilabeteko aldi baterako kontratua egitea, jarraitzeko aukera izanik; berehalaxe hastea; enpresaren kontura trebatzea; lantalde sendo batean sartzea; urtean 28.000 € gordin inguru + plusak kobratzea

PALA KARGATZAILEKO MAKINISTAK (2)

Funtzioak: Biltegian tona askoko karga paletizatuak eta paletizatu gabeak mugitzea, tona askoko makineria erabiliz

Betekizunak: Pertsona aktibo eta abila izatea eta talde lanean aritzeko prest egotea; ezinbestean, antzeko funtzioetan esperientzia izatea; dumperrak, pala kargatzaileak, eskorgak... erabiltzen esperientzia izatea; aukeran, eraikuntza sektorean esperientzia izatea; ezinbestean, eskorgak edo garabiak gidatzen ikasi edo makinista izateko trebatu izanaren ziurtagiria izatea; gidabaimena edukitzea, lantokira joateko

Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea, jarraitzeko aukera izanik; probaldiaren ondoren enpresako langile bihurtzea; berehalaxe hastea; txandaka lan egitea; postuaren arabera kobratzea

EROSKETA-ADMINISTRARIA

Funtzioak: Hornitzaileak bilatzea eta aukeratzea. Eskaintzak negoziatzea eta prestatzea. Kostuak lantzea eta emateko epeak kontrolatzea. Egindako erosketen koadroak landu eta horien berri eman. Hornitzaileen kalitate-auditoretzeetan parte hartuko du.

Betekizunak: Pertsona dinamikoa, proaktiboa, malgua, jendartekoa, negoziatzeko eta komikatzeko erraztasuna duena, erabakitzaila eta taldeko lanarekiko bokazioa duena. Gradu Ertaineko edo Goi mailako prestakuntza, Ingeniaritza, LADE edo antzekoren bat. Negoziazioari eta erosketa prozesuei buruzko ezagutzak. Gutxienez, 3 urteko esperientzia erosketa postuetan, ahal izanez gero industria sektorean. Tailer mekanikoetarako erosketetan, mekanizatuetan eta plano peko erosketetan esperientzia edukitzea positiboki baloratuko da. Frantsesa jakitea aintzat hartuko da, eta hori izan ezean, ingelesa jakitea. Office eta ERP multzoak menderatzea. Gidatzeko baimena.

Hau eskaintzen da: Berehala hastea enpresaren langile-taldean. Postu egonkorra. Karrera profesionalaren proiektzioa. Lanpostuarekin bat datorren ordainsaria.

DEKORATZAILEA - INTERIORISTA

Funtzioak: Barruko proiektuak lantzea. Bezeroei eta hornitzaileei arreta ematea. Altzariak saldu eta partikularrentzako proiektuak egitea. Eskaerak, artxiboa, fakturazioa eta kobraketa egitea.

Betekizunak: Pertsona proaktiboa, itxura onekoa, lanarekiko jarrera onekoa, enpatikoa eta erabakitzaila. Prestakuntza dekorazioa, inyeriorismoan edo antzekoren batean. Marrazketa linealari buruzko ezagutzat, baita AUTOCAD eta 3D programak. Nagusiki, esperientzia edukitzea altzariaren sektorean, eta jendaurrean ere bai. Gida-baimena, lantokira iristeko. Joan-etorriak egiteko prestasuna baloratuko da. Jardunaldi erdiko hautagaitzak ere kontuan hartuko dira.

Hau eskaintzen da: Aldi baterako kontratua, iraupen luzekoa, hasierako probaren ondoren.



FABRIKA-LANGILEA

Funtzioak: Profilen, kantoien eta erretilu termo plastikoen industria-elaborazioa.

Betekizunak: Aurreko esperientzia edukitzea industria-ekoizpen kateetan.

Hau eskaintzen da: Obra edo zerbitzu kontratua.



GIPUZKOAKO OSTALARITZA
ELKARTEA

ZERBITZARIAK

Betekizunak: Aukeran, esperientzia izatea, hizkuntzak jakitea eta itxura ona izatea
Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea

SUKALDARIA

Betekizunak: Aukeran, azkar eta txukuna izatea eta lan egiteko gogoia eta esperientzia izatea
Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea

EAUX SKADI Elkartea

18 urtetik 25 urtera bitarteko hamabi gazteri 40 metroko goleta baten barruko sukaldaritzan trebatzen laguntzeko proiekturako

HEZITZAILEAK (2)

Betekizunak: Gaztea izatea, igeri egiten jakitea, frantsesez egitea eta autonomia izatea; aukeran, gazte langabeekiko lanean esperientzia izatea

SUKALDARITZA IRAKASLEAK (2)

Betekizunak: Gaztea izatea, igeri egiten jakitea, frantsesez egitea eta sukaldaritzan trebatu izana; aukeran, gazte langabeekiko lanean esperientzia izatea

MARINELA

Betekizunak: Gaztea izatea, igeri egiten jakitea, frantsesez egitea eta itsasketan esperientzia izatea; aukeran, gazte langabeekiko lanean esperientzia izatea

INGELESEKO IRAKASLEAK (2)

Betekizunak: Gaztea izatea, igeri egiten jakitea, frantsesez egitea eta antzeko taldeei ingeles eskolak ematen esperientzia izatea



PERSONEL POUR SECTEUR CONSTRUCTION ET TRAVAUX PUBLIC

- Peintre
- Maçon
- Ouvrier travaux public
- Charpentier Menuisier
- Dessinateur autocad covadis sur projets aménagements travaux public (2 postes)

Betekizunak: Experience au moins 3 ans dans le métier. Comprendre ou parler français est un plus.
Hau eskaintzen da: Intérim



Angeluko aldi baterako laneko enpresa baterako

- PEINTRE
- ELECTRICIEN
- PLOMBIER
- MAÇON
- MANOEUVRE BTP
- SOUDEUR
- COFFREURS / BRANCHEURS
- CHAUDRONNIER
- MANUTENTIONNAIR
- CHAUFFEURS PL / SPL / BUS
- CHARPENTIER

Betekizunak: Personnes qualifiées avec Français

Hau eskaintzen da: Intérim / CDD / CDI. Dès que possible



PRODUKZIO LANGILEAK (3)

Donostia aldean lan egiteko

Funtzioak: Elementu mekanizatuak ekoizteko lanak egitea

Betekizunak: Enpresa industrialetako lanetan esperientzia izatea, metalgintzan ahal dela, eta horrelako enpresetan ohikoak diren makina eta tresnak erabiltzen esperientzia izatea; aukeran, metalgintzako titulazioren bat izatea (mekanizazio, mantentze, elektrizitate... moduluak) eta zubi garabiak eta orga jasotzaileak gidatzen ikasi izanaren ziurtagiria eta esperientzia izatea

Eskaintza: Obra edo zerbitzu kontratua egitea; berehalaxe hastea; hiru txandatan lan egitea

SOLDATZAILEAK/MUNTATZAILEAK (2)

Goierrri aldean lan egiteko

Funtzioak: Soldadura lanak egitea eta egitura metalikoak muntatzea

Betekizunak: Pertsona arduratsu eta ordenatua izatea eta lantegian soldadura erdiautomatikoko lanak egiten eta planoari jarraituz egitura metalikoak muntatzen esperientzia izatea; planoak interpretatzen eta askotariko lanabesak (zulagailua, rotaflexa, esmerilagailua...) erabiltzen jakitea; aukeran, erdi mailako prestakuntza izatea (Mekanizazioa, Mantentzea, etab.)

Eskaintza: Obra edo zerbitzu kontratua egitea; berehalaxe hastea; hiru txandatan lan egitea



EMPRESA DE
TRABAJO TEMPORAL

INDUSTRIAKO LANGILEAK (5)

Funtzioak: Piezak tolestea, ebakitzea, soldatzea, muntatzea eta prestatzea; makinak programatzea; manipulazio lanak egitea

Betekizunak: Hirutik sei hilabetera bitarteko esperientzia izatea; frantsesa hitz egitea eta ulertzea

Eskaintza: Lanaldi osoko aldi baterako kontratua egitea, hemezortzi hilabetekoa gehienez ere; berehalaxe hastea

OBRA ZIBILEKO / ERAIKUNTZAKO PEOIAK (5)

Hendaia – Donibane Lohizune aldean lan egiteko

Funtzioak: Ofizialei laguntzea, materiala eta lanabesak prestatzea eta mugitzea, lanak egiten diren lekua garbitzea

Betekizunak: Hirutik sei hilabetera bitarteko esperientzia izatea; frantsesa hitz egitea eta ulertzea

Eskaintza: Lanaldi osoko aldi baterako kontratua egitea; berehalaxe hastea.

OBRA ZIBILEKO OFIZIALAK (5)

Mugatik gertu etxebizitza berrien eraikuntzan, errepide eta autobideetako lanetan eta zubien eraikuntzan lan egiteko

Betekizunak: Hiru urteko esperientzia izatea; frantsesa hitz egitea eta ulertzea; gidabaimena eta autoa edukitzea

Eskaintza: Lanaldi osoko aldi baterako kontratua egitea; berehalaxe hastea



BILTEGIKO LANGILEAK / ORGA GIDARIAK

Donostia, Bergara eta Zestoa inguruko enpresetan lan egiteko

Betekizunak: Zamalanak egiten, picking lanak egiten, pisatzen, etiketatzen eta datuak sistema informatikoan sartzen esperientzia izatea; orgak gidatzeko indarreko ziurtagiria izatea

Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea, lan askoko boladetan, udan, oporraldietan... lan egiteko; berehalaxe hastea

SUPERMERKATUKO PERTSONALA

Kutzazainak, apal betetzailak, arrandegiko langileak, urdaitegikoak, okindegikoak...

Betekizunak: Oinarrizko ikasketa arautuak egin izana, antzeko postu batean esperientzia izatea eta elikagaiak manipulatzeko ziurtagiria edukitzea; berehala hasteko eta egun solteetan lan egiteko prest egotea

Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea, lan askoko boladetan, udan, oporraldietan... lan egiteko; berehalaxe hastea

ADMINISTRARIAK

Giza baliabideen sailean, trafiko eta logistika sailean eta abarretan lan egiteko

Betekizunak: Unibertsitate mailako prestakuntza izatea, Zuzenbidean, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan, Psikologian / Lan Harremanetan eta abarretan; antzeko postu batean esperientzia izatea; goi mailako ingeles eta frantses ezaupideak izatea

Eskaintza: Enpresan sartzea

KALITATE TEKNIKARIA

Betekizunak: Prestakuntza teknikoa izatea; gutxienez hiru urteko esperientzia izatea antzeko postu batean,

automobilgintza sektorean ahal dela; frantsesa ondo jakitea

Eskaintza: Enpresan sartzea



Ahal dela ibilgailu propioa duten pertsona serio eta konprometituak, erabateko prestasuna dutenak

ADMINISTRARIA

Funtzioak: Deiei erantzutea, telefonoguneaz arduratzea, posta elektronikoaz arduratzea, bisitariei harrera egitea, emate agiriak egitea eta entregak kontrolatzea eta entregen jarraipena egitea

Betekizunak: Ezinbestean, bi urteko esperientzia izatea gutxienez eta ingelesez hitz egiten eta idazten jakitea; aukeran, frantsesa jakitea; Office erabiltzen jakitea; ibilgailua edukitzea eta berehalaxe hasteko eta ordutegi malgua izateko prest egotea

GALDARAGILEAK

Funtzioak: Soldadura piezak fabrikatzea eta muntatzea, planoak interpretatzea, sopletea erabiltzea, etab.

Betekizunak: Ezinbestean, bi urteko esperientzia izatea gutxienez; ibilgailua edukitzea eta berehalaxe hasteko eta ordutegi malgua izateko prest egotea

GARBITZAILEAK

Funtzioak: Bulego, aldagela eta pabiloien garbiketa industrialaz arduratzea

Betekizunak: Ezinbestean, bi urteko esperientzia izatea gutxienez; aukeran, makineria industrialak erabiltzen esperientzia izatea; ibilgailua edukitzea eta berehalaxe hasteko eta ordutegi malgua izateko prest egotea

ARRAIN MANIPULATZAILEAK

Funtzioak: Arraina garbitzea, manipulatzeko, sailkatzea, moztea, xerratan moztea, ontziratzea eta paletizatzea

Betekizunak: Ezinbestean, bi urteko esperientzia izatea gutxienez; ibilgailua edukitzea eta berehalaxe hasteko eta ordutegi malgua izateko prest egotea

BILTEGIZAINAK

Funtzioak: Material eta salgaiak hartzea, biltegitratzea, sartzea, gordetzea eta ateratzea eta material eta salgaien kalitatea kontrolatzea

Betekizunak: Ezinbestean, bi urteko esperientzia izatea gutxienez, orgak gidatzeko txartela edukitzea eta erabiltzaile mailako informatika ezaupideak izatea; ibilgailua edukitzea eta berehalaxe hasteko eta ordutegi malgua izateko prest egotea

BILTEGIKO LANGILEAK

Funtzioak: Orga jasotzailea eta zubi garabia erabiliz salgaiak eta bobina handiak zamatzea, materialak mugitzea eta kaketzea

Betekizunak: Ezinbestean, bi urteko esperientzia izatea gutxienez eta orgak gidatzeko eta zubi garabiak erabiltzeko ziurtagiriak edukitzea; ibilgailua edukitzea eta berehalaxe hasteko eta ordutegi malgua izateko prest egotea

POLIESTERRAREKIN LAN EGITEKO LANGILEAK

Funtzioak: Poliesterreko piezak fabrikatzea, hondeatzea, inprimatzea, piezei oinarria eta laka ematea eta piezak lixatzea eta akabatzea

Betekizunak: Ezinbestean, bi urteko esperientzia izatea gutxienez; berehalaxe hasteko eta ordutegi malgua izateko prest egotea

FABRIKAKO LANGILEAK

Funtzioak: Muntaketa kateetan lan egitea, piezak egiaztatzea, produkzio lanetan aritzea, etab.

Betekizunak: Ezinbestean, bi urteko esperientzia izatea gutxienez; ibilgailua edukitzea eta berehalaxe hasteko eta ordutegi malgua izateko prest egotea

ZURGINAK

Funtzioak: Piezak lixatzea, bernizatzea eta muntatzea

Betekizunak: Ezinbestean, bi urteko esperientzia izatea gutxienez; ibilgailua edukitzea eta berehalaxe hasteko eta ordutegi malgua izateko prest egotea

Eskaintza: Kasu guztietan, iraunaldi jakineko kontratua egitea



Empresa de Trabajo Temporal

EUSKADIMPLEO

BEIRAGILEA

Donostia aldeko beiragintza zerbitzu integralak ematen dituen enpresa batean neurketa eta muntaketa lanak egiteko

Funtzioak: Beirekin lotutako ezbeharrei erantzuteko bisitak egitea, beirateak neurtzea eta jartzea, beira gaiei buruz aholkatzea, telefonoko plataforma mugikorraren bidez komunikatzea

Betekizunak: Beira familiak eta motak zein diren eta beira manufakturak zer-nolakoak diren jakitea; ezinbestean, beira ebakitzen eta jartzen esperientzia izatea eta gidabaimena edukitzea; programa informatikoak erabiltzeko gaitasuna izatea; aukeran, bitrozeramikarekin eta/edo hotzekin lan egiten esperientzia izatea

Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea

I+G INGENIARIA

Elektronika sektoreko Oiartzualdeko enpresa batean lan egiteko

Funtzioak: Ingurune domotikoetarako produktu elektronikoak garatzea

Betekizunak: Pertsona autonomo, arduratsu eta segurua izatea; Elektronikako Ingeniaritzako titulazioa izatea; sistema domotikoetan (bereziki, KNX) eta mikrokontrolagailuen gaineko software eta hardwarearen garapenean esperientzia izatea; ingelesa hitz egiten eta idazten jakitea

Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea; balioaren arabera soldata kobratzea

MERKATARITZAKO INGENIARIA

Elektronika sektoreko Oiartzualdeko enpresa batean lan egiteko

Funtzioak: Estrategia komertziala garatzea; bezeroen zorroa kudeatzea eta bezero berriak erakartzea; banaketa puntuekin elkarlanean aritzea eta komertzialak prestatzea

Betekizunak: Elektrizitateko edo Elektronikako Ingeniaritzako titulazioa izatea eta sektorean esperientzia izatea; C1 mailako ingeles ezaupideak izatea; komunikatzeko abilezia, dohain komertzialak, talde lanean aritzeko gaitasuna, asertibitatea eta enpatia izatea

Eskaintza: Kontratu mugagabea egitea; balioaren arabera soldata kobratzea

LASERRA ERABILIZ MOZTEKO LANGILEA

Oiartzualdeko enpresa batean lan egiteko

Betekizunak: Pertsona autonomo, arduratsu eta ekimentsua izatea; talde lanean aritzeko gaitasuna izatea; erdi edo goi mailako Fabrikazio Mekanikoko Lanbide Heziketa egin izana eta antzeko postuetan esperientzia izatea frogatu ahal izatea; aukeran, orga jasotzaileak gidatzeko eta/edo zubi garabiak erabiltzeko ziurtagiria edukitzea

Eskaintza: Aldi baterako ordezkapen kontratua egitea, jarraitzeko aukera izanik; orduko 12,37 euro gordinoko soldata kobratzea

SOLDADURA SEMIAUTOMATIKOKO LANGILEA

Bidaso aldeko enpresa batean lan egiteko

Betekizunak: Pertsona autonomo, arduratsu eta ekimentsua izatea; talde lanean aritzeko gaitasuna izatea; erdi edo goi mailako Fabrikazio Mekanikoko Lanbide Heziketa egin izana eta antzeko postuetan esperientzia izatea frogatu ahal izatea; aukeran, orga jasotzaileak gidatzeko eta/edo zubi garabiak erabiltzeko ziurtagiria edukitzea

Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea; orduko 12,37 euro gordinoko soldata kobratzea

DELINEATZAILEA

Donostia aldeko enpresa batean lan egiteko

Funtzioak: Dokumentazio teknikoa diseinatzea eta idaztea makina-erremintaren eta trenen sektoreko enpresentzat (erabiltzaileentzako eskuliburuak, operazio eta mantentze eskuliburuak)

Betekizunak: Pertsona autonomo eta ekimentsua izatea eta talde lanean aritzeko gaitasuna izatea; Industriako, Industriako Ingeniaritza Teknikoko, Mekanikako edo Elektrizitateko goi mailako prestakuntza izatea eta Catia erabiltzen jakitea; B2 mailako edo hortik gorako ingeles ezaupideak izatea

Eskaintza: Behin-behineko kontratua egitea eta enpresan sartzeko aukera izatea; berehalaxe hastea; orduko 7,64 euro gordinoko soldata kobratzea

JOSTUN INDUSTRIALAK

Donostia aldeko enpresa batean lan egiteko

Betekizunak: Pertsona arduratsu eta autonomia izatea eta josteko makineria industrialak erabiltzen esperientzia izatea; aukeran, josteko industrialeko prestakuntza izatea

Eskaintza: Lan poltsan sartzea; orduko 7,94 euro gordinoko soldata kobratzea

TOLESGAILURAKO LANGILEA

Donostia aldeko enpresa batean lan egiteko

Betekizunak: Pertsona autonomo, arduratsu eta ekimentsua izatea; talde lanean aritzeko gaitasuna izatea; goi

mailako Fabrikazio Mekanikoko Lanbide Heziketa edo antzekorik egin izana eta antzeko postuetan esperientzia izatea frogatu ahal izatea; planoak interpretatzen jakitea; aukeran, orga jasotzaileak gidatzeko eta/edo zubi garabiak erabiltzeko ziurtagiria edukitzea

Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea, enpresan sartzeko aukera izanik; orduko 12,37 euro gordinoko soldata kobratzea

BILTEGIKO ARDURADUNA (HORNIKUNTZA/MUNTAKETA)

Donostia aldeko hornikuntza enpresetan lan egiteko

Funtzioak: Biltegiar arduratzea, eskuzko transpaleta erabiltzea, stocka kontrolatzea, salgaiak kudeatzea, piezak eta ziriak muntatzea; bezeroei kasu egitea, salmenta zerbitzuaz arduratzea

Betekizunak: Pertsona arduratsu, autonomo eta ekimentsua izatea eta talde lanean aritzeko gaitasuna izatea; goi mailako oinarrizko prestakuntza izatea; mekanika, elektronika eta bulegotika ezaupide aurreratuak izatea; aukeran, hiru urteko esperientzia izatea gutxienez antzeko enpresetan; aukeran, euskara jakitea

Eskaintza: Iraupen luzeko aldi baterako kontratua egitea; postu egonkor batean aritzea

INPRESIO DIGITALEKO MAKINISTA TEKNIKOA

Donostia aldeko enpresa batean lan egiteko

Funtzioak: Kautxua injektatzeko makinekin lan egitea, moldeak erabiltzea eta piezei bizarrak eskuz kentzea

Betekizunak: Pertsona autonomo eta arduratsua izatea eta inprimagailu digitalak, offset inprimagailuak edo serigrafia makinak erabiltzen esperientzia izatea; aukeran, arte grafikoen esparruko esperientzia izatea

Eskaintza: Behin-behineko kontratua egitea, enpresan sartzeko aukera izanik; orduko 7,94 euro gordinoko soldata kobratzea

HEINDENHAIN FRESATZAILEA

Metalgintzako enpresa batean lan egiteko

Funtzioak: Planoari jarraituz piezak mekanizatzea

Betekizunak: Antzeko postuetan bost urteko esperientzia izatea eta Mekanizazio bidezko Produkzioko goi mailako prestakuntza izatea; ahal dela, makinako bertako programazioan eta planoen interpretazioan esperientzia izatea

Eskaintza: Lanaldi osoko aldi baterako kontratua egitea



HORTZETAKO MERKATARITZAKO AHOLKULARIA

Hortz inplanteen sektoreko enpresa batean lan egiteko

Funtzioak: Bezeroak bisitatzea, bezeroen zorroko bezeroak fidelizatzeko zein bezero berriak erakartzeko

Betekizunak: Pertsona arduratsu, proaktibo eta ekimentsua izatea eta jendetasuna eta komunikatzeko gaitasun handia izatea; Hortz Protesietako edo Aho-hortzetako Higieneko goi mailako prestakuntza izatea; produktu sanitarioak edo hortz protesi edo inplanteak saltzen esperientzia izatea

Eskaintza: Enpresan sartzeari; balioaren arabera soldata kobratzea

	<p>NAZIOARTEKO KOMERTZIALA Tolosaldeko industria batean lan egiteko Funtzioak: Nazioarteko bezeroak mantentzea eta bezero berriak sortzen laguntzea Betekizunak: Pertsona arduratsua izatea, bezeroei begiratzea argi eta garbi eta bezeroak konbentzitzeko gaitasuna, komunikatzeko gaitasun ona eta talde lanean aritzeko gaitasuna izatea eta enpresarekin konprometitzea; unibertsitate mailako prestakuntza izatea eta komertzial lanetan esperientzia izatea; goi mailako aleman ezaupideak eta/edo Iparraldeko beste hizkuntza batekoak izatea; bidaiatzeko prest egotea Eskaintza: Aldi baterako kontratua eta, gero, kontratu mugagabea egitea; balioaren arabera soldata kobratzea</p>
 <p>INTEGRA</p>	<p>GARBITZAILEAK (4) Udal kiroldegien eskuzko garbiketan eta garbiketa industrialean aritzeko Betekizunak: Pertsona autonomo, arduratsu eta ausarta izatea; % 33ko ezgaitasuna edo handiagoa egiaztatzen duen ziurtagiria edukitzea; gidabaimena eta, lehenengo txandan lan egiteko, ibilgailua edukitzea; aukeran, garbiketa-lanetan esperientzia izatea Eskaintza: Lanaldi osoa (asteko 35 orduko) aldi baterako kontratua egitea; berehalaxe hastea; txandaka lan egitea, 05:00etatik 11:00etara, 10:00etatik 16:00etara eta 16:00etatik 22:00etara, astelehenetik igandera eta jaiegunetan; 920,50 euroko soldata gordina kobratzea hilabetean</p>
<p>TOURISHOUSE HONDARRIBI, SL</p>	<p>Hondarribiko hotelean lan egiteko</p> <p>HARRERAGILEA Betekizunak: Ezinbestean, frantsesa eta ingelesa jakitea Eskaintza: Lanaldi osoan lan egitea</p> <p>GARBITZAILEAK Betekizunak: Ezinbestean, esperientzia izatea Eskaintza: Lanaldi osoan lan egitea</p>
	<p>MUNTATZAILEAK (7) Funtzioak: Piezak muntatzea eta mihizatzea eskuz eta baliabide teknikoak erabiliz (muntatzeko azken teknologiako makinak, soldadura, gelditze probak, etab.); materialak antolatzea eta lekualdatzea Betekizunak: Erdi mailako ziklo bateko prestakuntza izatea gutxienez, Industriako familiaren bateko profesionaltasun ziurtagiria edo baliokidea izatea Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea; berehalaxe hastea</p>



JANGELAKO BEGIRALEAK (3)

Donostia eta Irun aldeko jangeletan lan egiteko

Funtzioak: Erabiltzaileei elikagaiak irensten, poliki jaten, zuzen esertzen, mahai tresnak behar bezala erabiltzen... laguntzea; patioan eta geletan segurtasuna kontrolatzea eta zaintza lanak egitea; enpresak, ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzak eta abarrek finkatzen dituzten arauak eta elikagaiak manipulatzeko arau higieniko sanitarioak betetzea

Betekizunak: % 33ko ezgaitasuna edo handiagoa izatea; antzeko postu batean esperientzia izatea; goi mailako euskara ezaupideak izatea; ezinbestean, antolatze eta talde lanean aritzeko gaitasuna izatea, lanpostuan oso arduratsua izatea eta astelehenetik ostiralera lanaldi partzialean lan egiteko prest egotea; inguruan bizitzea

Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea; astelehenetik ostiralera lanaldi partzialean (13:00etatik 15:00etara lan egitea); hitzarmenaren arabera soldata kobratzea

KUTXAZAINA / APAL BETETZAILEA

Donostiako supermerkatu garrantzitsu batean lan egiteko

Betekizunak: Adecco Fundazioko taldeetako partaide izatea (45 urte baino gehiago izatea, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa izatea, senide baten arduradun bakarra izatea edo genero indarkeriaren biktima izandako emakumea izatea); antzeko postu batean esperientzia izatea, jarrera ona izatea eta enpresarekin konprometitzea

Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea

ETXEKO LAGUNTZAILEA

Donostiako zerbitzu enpresa batean lan egiteko

Funtzioak: Erabiltzaileak janzea, elikatzea, txukuntzea, duxatzea, garbitzea, mugitzea eta etxe barruan lekualdatzea; eguneroko bizitzan egin beharreko jarduerak egiten eta sendagaiak hartzen laguntzea; dagokion koordinatzaileari erabiltzaileen egoeran gertatzen den edozein gorabehera edo aldaketaz ohartaraztea; etxea garbitzen laguntzea; lagun egitea

Betekizunak: Adecco Fundazioko taldeetako partaide izatea (45 urte baino gehiago izatea, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa izatea, senide baten arduradun bakarra izatea edo genero indarkeriaren biktima izandako emakumea izatea); pertsonen etxean laguntza soziosanitarioa emateko profesionaltasun ziurtagiria edo antzekoa izatea; urtebeteko esperientzia izatea gutxienez

Eskaintza: Obra edo zerbitzu kontratua egitea

GARBITZAILEA

Funtzioak: Bulegoak, erkidegoak edo ikastetxeak garbitzea

Betekizunak: % 33ko ezgaitasuna edo handiagoa izatea; garbiketa postuetan esperientzia izatea

Eskaintza: Obra edo zerbitzu kontratua egitea; lanaldi partzialean lan egitea, egin beharreko zerbitzuen arabera



ZERBITZARIAK

Betekizunak: Esperientzia izatea ez da beharrezkoa

Eskaintza: Lan – poltsa. Estra-lanak (oturuntzak, bilerak, konbentzioak eta abar,.....)

SUKALDARIA

Betekizunak: Esperientzia izatea.

Eskaintza: Aldi baterako kontratua egitea.



Lan eta prestakuntza arloko aholkularitza eta orientazioa
Ikaskuntzaren eta prestakuntza ibilbideen gaineko gaiei
buruzko bitartekotza zerbitzua
Enplegu - Zentroa
Lan arloko bitartekotza eta enpresako praktiken kudeaketa
LANBIDEk baimendutako enplegu agentzia (zk.: 160000045)

FINANCIA



Lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo



pôle emploi